

**AITZINA**

Editora: Fermin Munarriz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduna, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

**NORANTZA**

**Iñaki Marko**

Euslab egitasmoaren zuzendaria

**«Euslab uhinak bezala zabalduko da sindikatuan»**

Betidanik izan du LABek euskararekiko konpromisoa, baina orain arte egin dituen saiakerek ez dute sindikatuak nahi dituen emaitzarik eman. Horregatik, izan duen azken kongresuan berriro planteatu zen LAB euskalduntzeko beharra, eta behar horren ondorioz dago martxan Euslab.

pidea euskaraz jakitea ez dela euskararen normalizazioa. Horrekin egiturek euskaraz funtzionatu behar dutela esan nahi du. Euskaldun batek erdaraz funtzionatzen duen egitura batean lan egiten bada, erdaraz hitz egingo du. Orduan ez da bakarrik pertsonen kontua, baizik eta egiturarena, egitura horrek euskaraz funtzionatu behar baitu. Kontuan hartu genuen beste irizpide bat da, adibidez, irekia izatea, partehartzaile.

**Proiektu hau aurrera eramatean, zein oztorekin topatu zarete?**

LAB egitura handia da, eta estilo fonetako esperientzia gutxi dago, enpresen munduan egin direnak zentratuak dira, fisikoki ere. Kontuan hartu behar da LABek 20.000 afiliatu dituela, 200 bat liberatu eta hainbat egoitza lau herrialdeetan. Horregatik, plana progresiboki jarriko da martxan, aparato zentraletik hasiko da eta uhinak bezala zabalduko da sindikatu osoan.

Beljurrik ere badago, eta oso normal eta sana da. Halere, halako eisipen giroa dago LABen, batez ere urtetan euskaraz ikasten ibili den jendearen artean, euskaraz ikasi ondoren euskaraz bizitzeko pausoa eman ez duen jendearen artean, horiek orain ikusten dutelako pauso hori emateko aukera.

**Plana egina dago eta martxan, zein izango da egitasmo honen hurrengo desafioa?**

Lehenengo urratsak udaberrian eman genituen eta hurrengo desafioa lehenengo urrats horien emaitza onak jasotzea izango da, eta gero emaitza horiek sindikatuan zabaltea. Oso garrantzitsua da ilusioaren termometroa gero joatea, termometro horren temperatura gorantz joaten bada, oso kutsagarria izan daitekeelako.

**BEGONA SIMON**

Iñaki Markok zuzentzen du Euslab, LAB sindikatua euskalduntzeko plan estrategikoa.

**Noiz eta zergatik sortu zen egitasmo hau?**

Duela urte bete prestatzen hasia da Euslab. LAB sindikatuak betidanik izan du euskararekiko konpromisoa eta zenbait gauza egin du, baina ez ditu jaso espero zituen emaitzak. Gaia azken kongresuan planteatu zen eta sindikatua niregana etorri zen, plan estrategikoa diseinatzeko.

**Zein urrats egin dira gaur arte?**

Joan zen irailean hasi ginen, orain urte bete, eta barne azterketa egin genuen, egoera zertan zen jakiteko. Egindako azterketaren datuekin egitasmoa diseinatu genuen, eta barne egituran arketzu eta onartu egin zen. Aste Santu ondoren hasi ginen plana aplikatzen.

**Nolakoa da Euslab proiektua?**

Kontuan izan dugu dagoen esperientzia eta eskamentua, eta horregatik izan da gure lehen iriz-



Kaiztoz, Coarbita



**Txillardegui**

39 izen

Arrazoin pertsonalengatik Londonen nongoen. Eta, Chelsea-tik aurrera, Thames ibaiiko inguruak ezagutu nahi nituen. Mendebaldeantzekoako orangoan.

Eta horretara, autobus gorri famatu horietako batean, gailkaldan sartu, eta Fulham auzoraino joan nintzen. Arrastriria epel, eliza zaharreko zuhaitzaraino joan nintzen polliki-polliki, eta hantxe ibai-beragian aurrera abiatu. Thames ibia zabalda da inguru hartan, eta Putney-go zubia luze xamarra.


Gero jakin dut, aitortuko dizuet, jauregi buraxe izan zela luzuz London-go Apezpizkuaren Uda-Egoitza. Eta Fulham Palace delakoa London-go pitxi-multzto harrigarriko beste atal bat dela. Bat-batean harlosa gorri diztirante batek inarrosi ninduen. Zut ezartza, urrezko letrak zituen bi alderdietan.

"International Brigade" irakurri dut aurrekaldean: «In honour of the volunteers who left Hammersmith and Fulham to fight in the International Brigade, Spain 1936-1939... to stop Fascism and save Liberty and Peace». Eta beherean, sinadura gisa, bi hitz bakar hauek: «No pasaran». Sekulako zauskada batek astindu ninduen, arrastiri ederraren malenkoniak azkartua. Hari gorniaz bestealdean, hiru zutabetan, gerratean hildako 39 ezkerter bolondresen izenak irakurri ditut: Allender, Bird, Blackman, West, Row... 13 lerrotan. Jende apala, segurki. Jauntxorik ez lerrokada hirukoitzean. Gizon zintzo ez-zagun hauek, orandik ustelkeria nagusi ez zegoelarik, gu guztion alde eman zuten dena: "International Brigade" miresgarri hura mamitu zutenen idealismo harrigarrian. Oñore zuei!

Horregatik, irakurle, otai: zu ere inoiz Fulham-en gertatzen bazara, hurbil zaitiez orotari gorri horretaraino; eta izen haien aurrean, egizu gogoeta apur bat isilean. Nik lehen-goan egin nuen bezala. Egizu zapaltzaileen kontrako borrokan hildako guztien oroimenez.

**Aitzindariak**

**Pete AGERREBERRI**  
1 8 7 4 1 9 4 5



A C E I C A K O + P I P K I N + X I P R I